

VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO UDALA ETA BATURIK ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, "TRAPAGARAN ZAINDU MERKATARITZARAKO BONU PLANA -2024KO UDAZKENA- NEGUA" GARATZEKO.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2024ko irailaren 11an.

BILDURIK

Alde batetik, Miguel Ángel Gómez Viar jauna, adinez nagusia, NAN zk. 22742223F duena, **Valle de Trápaga-Trapagarango udaleko** udalburu eta ordezkari gisa, behar bezala ahaldunduta egintza honetarako, indarrean dagoen tokiko legeriak ematen dizkion eskumenez baliatuz, eta 467/2023 Dekretua betez. Udalaren IFZ P489093001 da eta Valle de Trápaga-Trapagarango Lauaxeta plazako z.g.-n du egoitza (K.P. 48510, Bizkaia).

Beste aldetik, Iñaki Sasiain Telletxea, adinez nagusia, NAN zk. 30.616.567 W duena, **"Baturik" Trapagarango Merkatarari eta Ostalarien elkartearen** presidente gisa. Baturiken IFZ G95394219 da eta Valle de Trápaga-Trapagarango Juan Sebastián Elkano, 17-19an du egoitza (K.P. 48510, Bizkaia)

Bi aldeek elkarri aitortzen diote legezko gaitasun nahikoa lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eta berori sinatu baino lehen:

ADIERAZTEN DUTE

1.- Valle de Trápaga-Trapagaran, Bizkaiko Nerbioi Ezkerraldeko Meatzaldean kokatuta dago eta gaur egun, 11.961 biztanle ditu. Ekonomiari dagokionean enpresa-jarduera estrategikoa du.

Jarduera horretatik, oro har, merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-jarduera oso pisutsua da, eta jarduera horren % 35 hartzen du.

2.-Jarduera horren ezaugarri nagusia da txikizkaria izatea, eta ehuneko handi batean familia-nukleoek atenditzen dute, baina azken hamarkadan udalerrri mugakideetan eta inguruan azalera handiak ezartzeak arrisku larrian jartzen du.

3.- Horren ondorioz, gure jarduera ekonomiko hurbilenak gastu-ihes handia jasaten

du, eta horrek gure ekonomiari biziraupen-arazo larria sortzen dio.

Gainera, banaketa geografikoari dagokionez, alde batetik, jarduera hori udalerraren erdigunean kontzentratzen da, auzo periferikoetan mugatua izanik, eta, bestetik, herriaren erdigunea N-634 errepidearen ondorioz bi eremutan banatzen denez, zailtasun asko ditu.

Horrek guztiak, azken urteotako egoera ekonomikoaren ondorioz jarduera profesional asko pasatzen ari diren zailtasunekin batera, ezinbestekotzat jotzen du merkataritza, ostalaritza eta, oro har, zerbitzuei laguntza instituzionala ematea.

4.- Herrian Merkataritza eta Ostalaritza Elkarrekin Elkartea, Baturik izenekoa, 2005. urtean sortu zena. Une horretatik aurrera, tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko eta dinamizatzeko jarduerak ugarituz joan da, eta gero eta gehiago inplikatu da Trapagarango bizitza sozial eta kulturean.

5.- Sinatzaileek uste dute beharrezkoa dela elkarrekin jardutea merkataritza, ostalaritza eta tokiko zerbitzuetako jarduerak biziberritu eta dinamizatzeko, bertako jendea zein inguruko udalerrietakoak erakarriz.

Udal Erakundearen eta Baturik erakundearen artean merkataritza sustatzeko eta suspertzeko proiektu komun bat dago, ahal den neurrian merkataritza-zereginak azalera handietan egiten dituzten bezeroen galera saihesteko. Horretarako, urte urte berritzen diren baterako jarduerak adosten ari dira, eta, horrela, ekintzak hobeto kudeatzen eta koordinatzen direla ziurtatzen dute, bata besterekin osatu eta indartzen direlako.

Eta azaldutako guztia oinarri hartuta, dauden akordioak betetzeko, bi aldeek **LANKIDETZA HITZARMEN** hau formalizatzea erabaki dute. Hitzarmen horren bidez, udalerrian txikizkako jarduera mota guztiak suspertu nahi dira, "**Trapagarango Zaindu Merkataritza Bona, 2024ko udazkena-negua**" sortuz, honako hauetan oinarrituta:

HIZPAKETAK

A: UDALAREN ALDETIK:

- 1.- Udalak **13.925 €** emango dizkio Baturik Elkarteari, erosketa-bonu horren ezarpena kofinantzatzeko. Bonu horrek ondorengo atalak bete beharko ditu.

Kargu hori ordaintzeko aurrekontu-partida 430-48002 behar bezala zehaztuta eta onartuta dago 2024ko ekitaldiko udal-aurrekontuetan.

Esleitutako 13.925 euroak Caja Rural de Navarraren Trapagarango sukurtsalean Baturik erakundeak bonu komertzial horren ondorioetarako soilik irekita duen kontu korrontean sartuko dira, eta bi aldeko hitzarmen hau sinatu eta hurrengo hamabost egunetan ordainduko dira.

- 2.- Horretarako eskaera jaso ondoren, udal lokalen erabilera lagako du, egun jakin batzuetan Baturik aurrez aurre saltzeko bonuak.
- 3.- Informazioa emango du, bai establezimendu parte-hartzaileen inskripzioari buruz, bai bonuak saltzeko eta erabiltzeko moduari buruz.
- 4.- Gune bat jarriko du Baturik erakundearen eskura, eta bertan, establezimendu parte-hartzaileek kontsumitutako bonuen zatikiak eta tiketen eta/edo fakturen kopiak gordailutuko dituzte ezarritako epeetan, ondoren Baturik-i emateko. Azken horrek, berrikusi eta baliozkotu ondoren, establezimenduei ordainduko dizkie, B.4 atalean xedatzen den bezala.
- 5.- Ez da inolako bermerik eskatuko, dirulaguntzaren berezitasuna dela eta.

B: BATURIKEN ALDETIK:

- 1.- Kanpainaren publizitatea egingo du, bai establezimendu parte-hartzaileen inskripzioari dagokionez, bai bonuen salmentari eta erabilerari dagokionez.
- 2.- Bonuak aurrez aurre salduko ditu, vi.a. atalean ezartzen den moduan.
- 3.- Bonuen online salmenta www.trapagaranbizi.com webgunearen bidez kudeatuko du, vi.b atalean ezarritakoaren arabera, eta salmenta horrek eragindako gastuak ere ordainduko ditu.

4.- Kontsumitutako bonuak eta establezimendu parte-hartzaileek emandako tiketen eta/edo fakturen frogagiriaren kopiak berrikusi eta baliozkotuko ditu, ondoren, xi. atalean xedatutakoaren arabera ordaintzeko.

5.- Kanpaina amaitu ondoren, 2024ko abenduaren 31a izango da azken eguna, eta Udaleko Erregistro Orokorrean honako agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Egingako jardueraren **justifikazio-memoria**, non jasota egongo den gastatutako zenbatekoa eta dirulaguntza honen kostua (13.925 €) erabat gastatu den ala ez.

- **Inprimatutako bonuen originalak, guztiak kontsumituak, eta tiketen edo fakturen egiaztagiriaren kopiak.**

Diruz lagundutako zenbateko osoa erabili ez bada, sartutakoaren eta kontsumitutakoaren arteko aldea Udal Kutxetara itzuli beharko da 2024ko abenduaren 31a baino lehen.

C. BONUAREN BALDINTZAK:

- i. Merkaritza bonu honek 15 €-ko balioa du. Erosteak 10 € ordainduko ditu eta gainerako 5 euroak lehen puntuan deskribaturiko udal laguntzaren kontura ordainduko dira.
- ii. Kanpaina parte hartzen duen saltoki bakoitzak, gehienez 250 bono eduki ahal izango ditu.
- iii. Eroslea adinez nagusia izan beharko da. Pertsona bakoitzak ezin du lau bonu baino gehiago erosi eta NANarekin egiaztatuko du hori. Modu presentzian erosi bakoitzak, bereaz gain, 60 urtetik gorako beste pertsona baten NANA aurkeztu ahal izango du.
- iv. Merkatari-tatik bakoitza erosketa bakar batean baino ezin da erabili eta tiket edo faktura bakarrean islatuko da. Erosketaren zenbatekoa zatikiaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldea ez da esku-dirutan itzuliko eta tiketean edo fakturan agertzen den kopurua baino ez du jasoko saltokiak bere dirua berreskuratzeko orduan. (Adibidea: Tiket edo fakturan islatutako zenbatekoa 14 € bada, saltokiak bere dirua berreskuratzeko orduan 14 € jasoko ditu, ez 15 €.)

v. Bonuak ezin direnez esku-diruagatik trukatu, eta haien zenbatekoa ez denez inoiz ere itzuliko, itzulketaren bat egiten bada, saltokiak txartel bat emango du erosketaren zenbateko osoaren balioarekin.

vi. Kontsumitzaileek era hauetara eskuratu ditzakete bonuak:

a) Bertatik bertara, bonuen salmentarako berariaz ezarritako tokietan, 2024ko irailaren 18 eta 19an, 60 urtetik gorako pertsonentzat. Erosketa esku-dirutan egingo da eta zenbateko zehatza ordainduko da.

Horrela 250 bonu saldu ahal izango dira.

Kontsumitzaileak erosten duen unean bertan jasoko du bonua.

b) On-line, trapagaranbizi.com webgunearen bidez, (udalaren ataritik eta udalaren eta Baturik-en Facebooketik atzitu daiteke) 2024ko irailaren 23tik irailaren 27ra arte edo izakinak agortu arte.

Webgune honetan modu presentzialean saldu ez diren bonuak eta gainerako 2.535 bonuak salduko dira.

On-line erosten badu, kontsumitzaileak zuzenean deskargatu dezake bonua webgunetik.

vii. Proiektu honetara **atxiki** nahi duten merkatariak, ostalariak eta zerbitzuetako arduradunek, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Txikikako saltokia izatea, 10 enplegatu edo gutxiagokoa (autonomoak eta inoren konturako langileak barne).

b) Gutxienez, saltoki bat edukitzea Valle de Trápaga-Trapagaranen.

c) Altan emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe hauetako batean:

1.419		Ogi, opil, pastel eta gailtagintza industriak
1.454		Neurrirako jantzigintza eta osagarrigintza
1.463		Zurgintzako piezen, parket eta eraikuntzarako zurezko egituren serie-fabrikazioa.

1.468.5		Altzarigintzako industrien ondoko jarduerak
1.474		Arte grafikoak
1.504		Instalazioak eta muntaketak
1.64		Elikagai, edari eta tabakoaren txikikako merkataritza, saltoki egonkorretan egina (Salbuespena: 1.647.4, 400 m ² edo gehiagoko azalera)
1.65		Janariak ez diren produktu industrialen txikikako merkataritza, saltoki egonkorretan egina (Salbuespena: 1.655, Erregaiak eta lubrifikatzaileak)
1.66		Merkataritza mistoa edo integratua. Txikikako merkataritza, saltoki egonkor batetik kanpo egina; gordailuan utzitako erakustegi bidezko edo aparatu automatikoen bidezko merkataritza; hainbat produkturen postazko eta katalogo bidezko txikikako merkataritza.
1.69		Konponketak
1.751.5		Ibilgailuen koipeztatze eta garbiketa
1.832		Aseguruen laguntzaileak
1.844		Publizitate, harreman publikoak eta antzekoen zerbitzuak
1.933		Irakaskuntzako beste jarduera batzuk
1.944		Naturopatia, akupuntura eta beste zerbitzu parasanitario batzuk
1.967		Kirol-instalazio eta -eskolak eta kirol hobekuntzarako zerbitzuak
1.97		Zerbitzu pertsonalak (Salbuespena: 1.974, Etxeko zerbitzuak emateko agentziak)
1.981.2		Jolas-guneak
2.013		Albaitariak
2.731		Abokatuak
2.732		Prokuradoreak
2.776		Zientzia politiko eta sozialetako doktoreak eta lizentziadunak. Psikologokak, antropologoak, historialariak eta antzekoak.
2.79		Finantza-jarduera, jarduera juridiko, aseguru eta alokairuekin lotutako beste profesional batzuk, beste atal batzuetan jasota ez daudenak.
2.826		Hainbat irakaskuntzako irakasleak

2.83		Osasuneko profesionalak
2.84		Jarduera parasanitarioetako profesionalak
2.887		Makilatzaileak eta estetizistak

Bi alde kontratatzaileek izango dute Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren zerrenda hau aldatzeko eskubidea.

Gorago aipaturiko eskakizunak betetzen dituzten establezimenduek, kanpainan parte hartu nahi badute, Udalaren eta Baturiken webguneetan eskuragarri dagoen on-line inprimakia bete beharko dute irailaren 13ko 9:00etatik irailaren 13ko 13:00etara arte.

Establezimendu horiei atxikitzeko eskaera hobeto baloratu ahal izateko beharrezkotzat jotzen den edozein dokumentu eskatu ahal izango zaie.

Adierazitako egunetan atxiki ez den establezimendu bati ere ez zaio bonurik jasoko edo ordainduko.

ix. Kanpainan parte hartu dezakete **Baturikeko elkarkide diren establezimenduak zein ez direnak ere.**

x. 2024ko urriaren 4tik 31ra arte, biak barne, erabili ahal izango dira bonuak, kanpainara atxikitako saltokietan. Atxikitako saltokien zerrenda kanpainaren, Baturik-en eta udalaren webguneetan jarriko da eta udalaren zein Baturik-en Facebook-etan ere bai.

Ezinbestekoa izango da bonuak inprimatuta eramatea erabili nahi diren saltokietara.

xi. Ordaintzeko prozedura:

Establezimenduak balidatu egin beharko du/ditu inprimaturiko bonua/k, antolatzaileek emandako zerrendan egiaztatuz. Balidatu ondoren, tiket edo fakturari erantsi beharko dizkio.

Valle de Trápaga-Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentzian bilduko dira inprimatu eta kontsumitu diren bonuak eta tiketak edota fakturen justifikanteen kopiak, bi aldi hauetan:

- 2024ko urriaren 16tik 18ra
- 2024ko azaroaren 4tik 6ra.

Erosketa tiketak edo fakturak, gutxienez, datu hauek izan beharko ditu: establezimenduaren izena, erosketaren data, IFK/IFZ eta zenbatekoa agertu beharko dira.

Agiri horiek Baturik gainbegiratu eta baliozkotuko ditu, ondoren ordaintzeko. Ordainketa hori beranduenez, 15 eguneko epean egingo da, bonuak eta tiketak edo fakturak jasotzeko aldi bakoitzaren azken egunetik hasita; eta banku-transferentziaren bidez egingo da, parte hartu duen establezimendu bakoitzak eman duen kontu zenbakira.

- xii. Baturik erakundeak programa sustatu eta zabaltzeko egiten duen **publizitate** guztiak gutxienez bere logotipoa eta herriko udalarena eraman beharko ditu, eta gomendagarria da Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarena, Merkataritzako Bulego Teknikoena eta Nafarroako Rural Kutxarena ere agertzea.
- xiii. **Jarraipen-organo** bat eratzen da, akordio honetan adierazitako eta programatutako ekintzen gainean sortzen den edozein arazo gainbegiratu eta ebazteko. Organo horrek ekintzen betetze-maila ebaluatuko du, eta neurri zuzentzaile egokiak gomendatuko ditu.

Organo hori paritarioa izango da, eta gutxienez toki-erakunde horretako ordezkari batek eta Baturik elkarteko beste batek osatuko dute.

Organo hori gutxienez behin bilduko da kanpaina hasi aurretik, beste behin kanpainen zehar, eta hirugarren batean emaitzak ebaluatzeko eta ekitaldia ixteko.

Eta agiri honetan jasotakoarekin eta hitzartutakoarekin ados daudela adierazteko, alderdiek bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako lekuan eta egunean, eta ale bana geratu da bakoitzaren esku.

Udalaren aldetik
Alkatea

Miguel Ángel Gómez Viar

Elkartearen aldetik
Presidentea

Iñaki Sasiain Telletxea